



**ERABAKIA, KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEARENA, BIZKAIKO FUTBOL FEDERAKUNDEKO LEHIAKETA ETA KIROL DIZIPLINAKO LURRALDE BATZORDEAK 2014KO AZAROAREN 11N EMANDAKO EBAZPENAREN AURKA “EL PILAR FÚTBOL 7” TALDEAK AURKEZTUTAKO ERREKURTSOA PARTZIALKI BAIESTEN DUENA.**

---

**Espediente-zenbakia: 41/2014**

**AURREKARIAK**

**Lehenengoa.**- 2014ko azaroaren 20an, “El Pilar Fútbol 7” taldearen ordezkariaren idazki bat sartu zen Kirol Justiziako Euskal Batzordean, ebazpen baten aurkako errekurtsoa aurkezteko; ebazpen hori Bizkaiko Futbol Federakundeko Lehiaketa eta Kirol Diziplinako Lurralde Batzordeak eman zuen 2014ko azaroaren 11n, eta horren bitartez, talde horrek Moraza B taldearen aurka jokatuta partida galdutzat ematea eta sailkapenean puntu bat kentzea erabaki zen, jokalaria zerrenda bidegabea izateagatik taldekideek ez zutelako lizentziarik (15.G artikulua, 17.2 H artikuluari dagokionez).

**Bigarrena.**- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak errekurtsu hori izapidetzea onartu zuen eta Bizkaiko Futbol Federakundeari espedientea eskatu zion; era berean, alegazio-izapidea gauzatzeko eta, hala nahi izanez gero, egokitze jotako frogak aurkezteko aukera eman zion.

Halaber, Moraza taldeko ordezkarien idazkia helarazi zitzaion, egoki iritzitako alegazioak egin zitzaion, baina ez du inolako adierazpenik egin.



**Hirugarrena**.- 2015eko urtarrilaren 8an, Bizkaiko Futbol Federakundeak igorritako espedientea jaso genuen, baita Eskola Futboleko Kirol Diziplina eta Lehiaketako Lurralde Batzordeak egindako txostena ere.

### **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**Lehenengoa**.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak du errekurtsio hau aztertzeko eskumena, hala xedatzen baitute ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzkoak, 138.a) artikuluan, eta urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duenak, 3.a) artikuluan.

Era berean, Eskolako kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuaren 22. artikulua ere aipatu behar dugu; izan ere, artikulua horren arabera, honako hauei dagokie kirol-arloko diziplina-ahalmena erabiltzea: lehen instantzian, parte hartzaileen gaineko eskolako kirolaren organo eskudunei, eta bigarren instantzian, Eskolako Kirolaren Euskal Batzordeari; eta aurreikuspen hori berretsi egiten da Eskola-kiroleko lehiaketan diziplina-araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuaren 4.1 artikuluan.

**Bigarrena**.- Errekurtsioa eragin zuten gertakariak 2014ko azaroaren 8an gertatu ziren, Moraza B eta "El Pilar Fútbol 7" taldeen artean jokatu zen partidari; partida hori B Ligako Futbol-7 Kimu-kategoriako txapelketako lehen jardunaldiari zegokion.

Arbitroak egindako Aktan jasotzen denez, *"El Pilar F-7 taldeak ez zituen fitxak aurkeztu partidaren hasieran. Fitxak ez zituenez, paper batean taldekideen, entrenatzailearen eta ordezkariaren izen-abizenak eta NAN zenbakiak idatzi zituzten eta paper hori aurkeztu zuten"*.



Gertakari horiek direla-eta, Bizkaiko Futbol Federakundearen Eskola Futboleko Kirol Diziplina eta Lehiaketako Lurralde Batzordeak, 2014ko azaroaren 11ko Ebazpen bidez, partida hori galdutzat ematea eta El Pilar taldeari sailkapenean puntu bat kentzea erabaki zuen, jokalaria zerrenda bidegabea izateagatik taldekideek ez zutelako zegokien lizentziarik (Eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuaren 15.G artikulua, 17.2 H artikuluari dagokionez).

Aurkeztutako errekurtsioan, El Pilar taldeko ordezkariak argudiatu du fitxak ez zituztela aurkeztu, hori egia dela, baina Guraso Elkarteko ordezkariaren hutsegitea izan zela, eta, horien ordeztu, jokalariek izena emateko triptikoa aurkeztu zutela, baina iruzur egiteko inolako asmorik gabe. Izan ere, triptiko horretan zehatz-mehatz identifikatzen dira el Pilar taldeko jokalaria guztiak, baita entrenatzaileak eta Guraso Elkarteko ordezkaria ere: izen-abizenak, jaioteguna eta koloretako argazkia ere agertzen dira. Haien ustez, jokalaria zerrenda bidegabea zela esatea gehiegizko esatea da.

Ildo beretik, “ESKOLA KIROLEKO LEHIAKETETARAKO ARAUETAN” honako hau aurreikusten dela ere esan dute: “Taldea guztiek jokatuko duten jokalaria guztien, entrenatzaileen eta ordezkarien fitxak aurkeztu behar dituzte nahitaez, partida bakoitza hasi baino lehen, “E”, “A” eta areto futboleko ligetan, eta “B” ligan jokalariek izena emateko triptikoa aurkeztuko dute. Triptiko hori balekoa izango da baina soilik fitxa guztiak NAHITAEZ behar bezala bideratuta –hau da, argazkiarekin, sinatuta eta Kirol Zerbitzuaren zigiluarekin– egon behar duten data jakinarazten duen arte; hori horrela ez bada, Bizkaiko Eskola Kirolaren Erregelamenduko Diziplina Araubidean xedatutakoari jarraitu behar zaio”.

Horren ordeztu, jokalaria zerrenda bidegabetzat jotako kasuetan, errekurtsogilearen ustez ezarritako zehapenak dakarren zigorra gehiegizkoa da,



eta , hala badagokio, ohartarazpen publiko edo pribatuko zigorra ezartzea proposatu du.

Azkenik, zehapen-ahalak jarraitu beharko liokeen kirol- eta hezkuntza-espiritua non geratu den aipatu du, bere ustez zigor hain larria ezarrita espiritu hori galdu egiten delako, sentsazio jakin bat eraginda: partidak bulegoetan irabaz daitezkeen sentsazioa, jokalekuan gertatutakoa gorabehera.

**Hirugarrena**.- Bizkaiko Futbol Federakundearen Eskola Futboleko Kirol Diziplina eta Lehiaketako Lurralde Batzordeak hainbat gogoeta helarazi dizkigu txosten baten bidez, errekurtsogileak egindako alegazioei dagokienez . Horrela, bada, lehenik, eta jazotako gertakariei eta "jokalari zerrenda bidegabea izateari" dagokionez, honako hau dio:

*“- Ez dago inolako zalantzarik jokalaria zerrenda bidegabea zela, El Pilar taldeak ez baitzuen jokatu zuten jokalarien fitxa bakar bat bera ere aurkeztu, behar bezala bideratuta. Fitxak ez aurkezteko arrazoia Guraso Elkarteko ordezkariaren hutsegitea izan zela alegatzea-onartzea kontraesana da; ordezkari horrek jaso behar omen zituen fitxak. Bestela esateko, jakin bazekiten fitxa guztiak, behar bezala bideratuta, data jakin batean jaso behar zirela, nahitaez erabili ahal izateko. Baina hori esan ondoren, zera alegatu dute, ez zekitela zer egunetarako egon behar zuten behar bezala bideratuta; eta une horretan triptikoak baleko izateari uzten zion.*

*- Noski, Batzorde honek kontuan izan duela, kasu honetan, ez dela iruzur egiteko asmoz jokatu eta egiaztatu duela jokalaria guztiak B Ligako Kimu-kategoriako El Pilar de futbol 7 taldean izena emanda zeudela. Hori guztia egin zuela Dekretu horren 14.g) artikuluan araututako eta larritzat jotzen den arau-haustea ez zela gertatu egiaztatzeko; izan ere, artikulua hori eskola-lizentzia ez*



*duten kirolariak zerrendan sartzeari buruzkoa da, eta Dekretu horren 17.1 artikuluan horri dagozkion zehapenak ere arautzen dira.*

Bigarrenik, eta zehapen-ebazpenean finkatutako mailaketari buruzko ordezeko asmoari dagokionez, Batzordeak honako hau dio:

*Zehapenaren mailakatzeari dagokionez, errekurtsioan ohartarazpen publiko edo pribatuarena proposatu da –17.2 artikulua azken i) eta j) bi letratan arautu dira–; aitzitik, errekurritutako Erabakian h) letran araututako zehapena hartu zen aintzat, erakunde arau-hauslearentzat (erantzule diren aldetik, egindako akatsaren damu dira orain, agerian geratu denez) berrezteko baliagarri izan zitekeelakoan. Batik bat, eskolako lehiaketa batean, bulegoetan irabazteak edo galtzeak ez baitu benetan garrantzitsuena izan behar (izan ere, zalantza izpirik gabe, haurrek zelaian gertatutakoa baino ez dute gogoratuko, salbu eta helduek oroitzapen hori kutsatzen ez badute). Azken batean, zigorraren motibazioa gertakarien kontakizuna bera da, gertakari horiek aitortu baitituzte eta errekurritutako zehapena ezartzeko bezain larriak direlako, gainera, Batzorde honi esleitutako ahalmenak baliatuta, eta aitzitik, aipatutako 17.2 artikulua a) letratik g) letrara bitarte araututako zigor larriagoak baztertuta, Dekretu horren 15 G artikulua urraketari baitagozkio.*

Azkenik, hainbat gogoeta helarazi ditu errekurtsogileak egindakoei erantzuteko; hona hemen eman dituen argudioak:

*“Batzordeak ulertzen du, nola ez, errekurritutako erabakiak atsekabea eragin dezakeela, baina ez dugu ahaztu behar aztergai dugun arau-haustea eragin duen hutsegitea edo utzikeria El Pilar kirol-erakundeko arduradunei lepora dakiekeela. Lehiaketa batean, izena ematen dutenek lehiaketa hori bideratzen duten arauak onartzen dituzte izena ematen dutenean, eta Batzorde honek arau horiek berak betearazi behar ditu, baina ez kartsuegi. Zorionez,*



*duela bi urte jada jakinarazi eta gogorarazi zen fitxak bideratu eta jaso egin behar zirela lehiaketan parte hartu ahal izateko, graziazko eperik gabe; izan ere, graziazko epeak zirela-eta, denboraldiaren zati handi bat igarotzen zen fitxak aurkeztu gabe, baina harrezkero, gaur aztertzen ari garenen moduko kasuak ia desagertu egin dira. Azken batean, eskola-kiroleko lehiaketa errespetatu egin behar da eta guztiontzako hezibide izango da, baita eremu honetan ere, baina betiere eskola-adineko kirolariak direlako ez baditugu baztertzen edo bereizten eta, bereziki, parte hartzen duten erakundeek ere gainerako lehiaketei bezainbesteko garrantzia ematen badiete, euren erantzukizunak normaltasun osoz onartuta eta barne-gogoetak eginda; barne-gogoeta horietan adingabeei parte hartzeko aukera eman diezaiekete, edo ez, baina sekula ez dugu onartuko Batzordeek besteren akats horiek leundu edo arindu nahi izatea.*

**Laugarrena.**- Ikus daitekeenez, errekurtsogilearen idazkian bildutako alegazioak ez ezik, Eskola Futboleko Kirol Diziplina eta Lehiaketako Lurralde Batzordeak txostenean helarazitako gogoetak ere azaldu ditugu, argudioak emateko ahalegin handia egin baitute biek ala biek.

Aztergai dugun kasuari dagokionez, gure ustez partzialki baietsi beharrean gaude, jarraian azalduko ditugun arrazoiengatik.

Lehenik, ez dugu inolako zalantzarik 2014-2015 ekitaldirako eskola-futboleko lehiaketak arautzen dituzten arauak urratu egin direla; zeren, lehen ere esan dugunez, B ligetan lizentzien ordeztu triptiko horiek aurkeztea onartuta badago ere, triptiko horiek balekoak izango baitira baina soilik fitxa guztiak NAHITAEZ behar bezala bideratuta egon behar duten data jakinarazten duen arte. Egia da ez dela aipatzen triptiko horrek zehatz-mehatz zein egunetan galtzen duen baliozkotasuna, baina errekurtsua egin duen klubak berak onartu



du "hutsegitea" egon zela behar bezala betetako fitxak jasotzeko garaian; beraz, jakin bazekiten betebeharrak hori bazutela.

Dena den, arau-haustea egin zutela onartu ostean, arauan zer nolako zigorra aurreikusi den aztertu behar da. Eta alderdi horri dagokionez, lehen aipatu dugun "ESKOLA KIROLEKO LEHIAKETETARAKO ARAUETAN", Fitxak atalean, betebeharrak hori betetzen ez den kasuetarako "Bizkaiko Eskola Kirolaren Erregelamenduko Diziiplina Araubidean xedatutakoari jarraitu behar zaiola" xedatzen da.

Era berean, Bizkaiko Eskola Kirola programak 2014/2015 denboraldian izango duen arautegia ebazten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 29ko 97/2014 Foru Dekretuaren 16. artikulua araberak, diziiplina atxikitzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Sailak irailaren 20an emaniko 2578/96 Foru Aginduan jasotako diziiplina-araudia ezarriko da. Foru agindu horren bidez, Bizkaiko eskolako kirol-jokoei aplikatu beharreko diziiplina-araudia onartu zen.

Baina, aldi berean, 2578/1996 Foru Aginduaren 16. artikuluan, zehapen-araubideari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Turismo Sailaren 1985eko uztailaren 29ko Aginduari (eskolako kiroleko lehiaketen diziiplina-arautegiari buruzkoa da) atxikitzen zaio, eta antza, 1985eko uztailaren 29ko Agindu hori esanbidez indargabetuta geratu da Eskola-kiroleko lehiaketen diziiplina-araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuaren xedapen indargabetzailearen bitartez.

Deigarria da Bizkaiko Foru Aldundiak diziiplina-araubidea eguneratu ez izana, 391/2013 Dekretu horretan gai horri dagokion araudi berriaren arabera.

Izan ere, Bizkaiko Futbol Federakundearen Eskola Futboleko Kirol Diziiplina eta Lehiaketako Lurralde Batzordeak berak, arau-haustea eta aplikatu



beharreko zigorra zeintzuk diren erabakitzeko garaian, 391/2013 Dekretu horretan xedatutako diziiplina-araubidera jotzen du. Ildo beretik, kontuan izan behar dugu Dekretu horren 5. artikulua araberan: *“Eskola-kiroleko lehiaketen diziiplina-araubidearen oinarri dira Euskadiko kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legea, dekretu hau, dekretu honen garapenerako foru-organoek emandako arauak eta erakunde antolatzaileek onetsitako diziiplina-xedapenak. Haietan zehaztu gabeko alderdietan, dagokion kirol-modalitatearen federazioak xedatutakoa aplikatuko da”*

Horrela, bada, egia da errekurtsioa aurkeztu duen klubak araudia urratu duela; aitzitik, jokalaria zerrenda bidegabekoa izatearen kasua ote den, hori eztabaidagarria da. Arazoa zera da, errekurtsioa aurkeztu duen klubak egindako ez-betetzea jokalaria zerrenda bidegabekoa izatearen kasutzat har ote daitekeen adieraziko duen araurik ez dugula, eta 391/2013 Dekretuaren 16.c) artikuluan aurreikusitako motara birbidera daitekeela; artikulua horretan, arau-hauste arintzat jotzen dira “kirol-arauen aurkako jokabide nabarmenak, arau-hauste larri edo oso larri gisa sailkatuta ez badaude”.

Baina jokalaria zerrenda bidegabekoa izateagatik arau-hauste larritzat jota ere, gure ustez zigorra ez da egindako arau-haustearen neurrikoa.

Kontuan izan kasu hau zein berezia den, zeren errekurtsioa aurkeztu duen taldeak une horretan fitxak behar bezala bideratuta ez zituen arren – Guraso Elkarteko ordezkariaren jokaera arduragabea dela eta–, “ESKOLA KIROLEKO LEHIAKETETARAKO ARAUETAN” aipatzen den triptikoa izan bai baitzuen, eta dokumentu hori balekoa da "B" ligako partidetan, kontrakoa xedatzen den arte.

Horregatik guztiagatik, eta deskribatutako kasurako zigor zehatz bat aurreikusi beharrean arau-hauste larrietan ezarri beharreko zehapen sorta bat





finkatu denez, gure ustez, jokaturako partida galdutzat ematea eta puntu bat kentzea gehiegizkoa da; horrenbestez, ohartarazpen publikoaren zigorra ezarri beharko litzateke, 391/2013 Dekretuaren 17. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki. Izan ere, zehapen hori ezar daiteke bai arau-hauste larrien kasuan (17.2.j artikulua), bai arau-hauste arinen kasuan (17.3.f artikulua).

**Bosgarrena.**- Bukatzeko, beste gogoeta bat aipatu nahi dugu.

Batzorde honek aztertu behar izan ditu behar bezala betetako lizentziak ez aurkeztearekin lotutako kasuak, eta kasu horietan, kasu bakoitzeko egoera zehatzak eta unean uneko ekitaldirako onartutako araudi espezifikoa hartu izan ditugu kontuan.

Jakin badakigu Bizkaiko Futbol Federakundearen Eskola Futboleko Kirol Diziplina eta Lehiaketako Lurralde Batzordearen kezketako bat zera dela, lehiaketan parte hartzen duten taldeek jokabide arduratsua izatea. Organo horrek, duela zenbait urte, honako hau jakinarazi eta *gogorarazi zuen: fitxak bideratu eta jaso egin behar zirela lehiaketan parte hartu ahal izateko, graziazko eperik gabe; izan ere, graziazko epeak zirela-eta, denboraldiaren zati handi bat igarotzen zen fitxak aurkeztu gabe, baina egia esan, betebeharrak zehatz horri dagokion zehapena ez da esanbidez aipatu, eta erakunde antolatzaileek onartu behar duten diziplina-araubidea arautzeko garaian egin liteke hori.*

Halaber, jakin badakigu Kultura eta Turismo Sailaren 1985eko uztailaren 29ko Aginduan (eskolako kiroleko lehiaketen diziplina-arautegiari buruzkoa da) esanbidez honako hau aurreikusten zela: *“Lizentzia egokia ez duen kirolariren bat alineatzeak edo horien lizentzia behar bezala legezatu gabe egoteak, honako zigorrak ekarriko ditu: (...) b) Partidua galtzea eta hutsa egin duen taldeari puntu bat kentzea”*, eta arau hori aplikatu izan dugu beste espediente



batzuetan (esaterako, 18/2011 espedientean). Baina kasu hartan, orain indargabetu den aldez aurreko araudi hori egoteaz gain, izatezko gertakaria ez zen aztergai dugunaren berdin-berdina; kasu honen berezitasuna azaltzeko ahalegina egin dugu.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak honako hau

### **ERABAKI DU:**

1.- "El Pilar Fútbol 7" taldeak aurkeztutako errekurtsoa partzialki baiestea; errekurtso hori Bizkaiko Futbol Federakundeko Lehiaketa eta Kirol Diziplinako Lurralde Batzordeak 2014ko azaroaren 11n emandako Ebazpenaren aurkakoa da. Izan ere, Ebazpen horren bitartez, talde horrek Moraza B taldearen aurka jokatura partida galdutzat ematea eta sailkapenean puntu bat kentzea erabaki zen, jokalaria zerrenda bidegabekoa izateagatik.

2.- 2014ko azaroaren 8an Moraza B eta El Pilar Fútbol 7 taldeen artean jokatu zen partidaren emaitza 1-5 dela erabakitzea, bigarrenaren alde, emaitza horrek sailkapenean eragiten dituen ondorio guztiekin; partida hori B Ligako Futbol-7 Kimu-kategoriako txapelketako lehen jardunaldiari zegokion.

3.- El Pilar Fútbol 7 taldeak arau-hauste bat egin duela adieraztea; hain zuzen ere, Eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuaren 16.c) artikuluan aurreikusitako arau-haustea, partidara "ESKOLA KIROLEKO LEHIAKETETARAKO ARAUETAN" aipatzen den eta jokalariek izena emateko erabiltzen duten triptikoarekin soilik agertzeagatik, jokalarien fitxak jada behar bezala bideratuta zeudela.



4.- Ohartarazpen publikoaren zigorra jartzea El Pilar Futbol 7 taldeari; ohartarazpen hori Bizkaiko Futbol Federakundearen Eskola Futboleko orrian egongo da ikusgai.

Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, bere aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, halaxe xedatzen du-eta Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 9a

**AGURTZANE ZANGITU OSA**

Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea